

San Josemaria New Delhi-ko katedralean (India)

Bere kanonizaziotik bost urte igaro dira eta San Josemariarenganako jaiera munduan zehar zabaltzen ari da. Joan den ekainaren 26an New Delhi Indiako hiriburuko gotzainak jaieguneko Meza ospatu zuen eta santuaren irudia inauguratu, katedralean.

2007 Uzt 27

Vincent Concessao artzapezpikua bertan zeudenei mintzatu zitzaien irudia inauguratu baino lehen. Pio X.a aipatuz, Eliza santuen behar gorrian dagoela esan zuen.

‘Hau izan zen San Josemariaren mezua: bataiatu guztiok gara santu izatera deituak. Elizen hormetan ez ezik lantegietan, bulegoetan eta abarretan egon behar dute santuek.’

“Bost axola zein den zure lanbidea – esan zien bildu ziren fededunei – lagun hurkoa zerbitzatzen laguntzen badizu, eta maitasunagatik egiten baduzu, Jaungoikoaren nahia onartuz.” Horrela, zeure burua Kristorekin bat egin ahal izango duzu eta Jaungoiko Aitarengana hurbildu.’

Bernard Alick indiar artistak margotu du erretxinaz egindako irudia; berak eskatu zuen irudia prozesioan ateratzen lehenetakoa izatea, artzapezpikuak eta bost

apaizek zerraizkiotela. Irudiak metro
bateko goibehea du eta katedraleko
bataiategiko kaperan jarri dute.

Bertaratu zirenetako batzuek loreak
ipini zituzten irudia ondoan.

Jharkhandeko Leena Khalkok eskatu
zuen santuaren aurrean beti lore
fresko batzuk egon daitezen ardura.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/san-
josemaria-new-delhi-ko-katedralean-
india/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/san-josemaria-new-delhi-ko-katedralean-india/) (2025 Abu 13)